

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

2785

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 9koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-oholean argitaratu dela 2022ko ekainaren 2ko Ebazpena, kide bat Ertzaintzaren Oinarritzko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionario izendatzen duena.

Bat etorritz Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2015eko martxoaren 6an eman zuen Ebazpenaren hamabosgarren oinarriarekin (ebazpen horren bidez, Ertzaintzaren Oinarritzko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da; martxoaren 17ko EHAA, 52. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinaraztea 2022ko ekainaren 7an Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-oholean argitaratu dela Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko ekainaren 2ko Ebazpena, kide bat Ertzaintzaren Oinarritzko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionario izendatzen duena.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, beronen kontra, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.